

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Berriozarko ikastetxe publikoa bi ikastetxek osatuko dute datorren ikasturtean

Mendialdea I ikastetxeak A eta G (gaztelaniaz) ereduetao ikasleak hartuko ditu eta Mendialdea II ikastetxeak D ereduetao (euskaraz)

Lunes, 27 de junio de 2011

Berriozarko Mendialdea Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa bitan banatuko da datorren 2011-2012 ikasturtean. Lehenengoa, Mendialdea I, A (gaztelaniaz, euskara ikasgai gisa) eta G (gaztelaniaz) ereduetao ikasleentzat izango da. Bigarrenak, Mendialdea II ikastetxeak, D ereduetao (euskaraz, gaztelania ikasgai gisa) emango ditu eskolak.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak, gaurko saioan, erabaki du oraingo ikastetxe publikoa desegin (ondorioak 2011ko ekinaren 30etik aurrera) eta Mendialdea I eta Mendialdea II ikastetxe publikoak sortzea (ondorioak 2011ko uztailaren 1etik aurrera) oraingo ikastetxea dagoen lekuan (Berriozar etorbidea, zk.g.). Bi ikastetxeen izena behin-behinekoa da.

Aurrez, Nafarroako Eskola Kontseiluak espedientearen aldeko txostena egin du eta irakasleen sindikatuko ordezkariak jakinarazi zaie.

Ikastetxe bakoitza, gehienez ere, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko (3-6 urte artean) 225 ikaslerentzako lekua duten bederatzi unitatek eta, gehienez ere, Lehen Hezkuntzako (6-12 urte artean) 450 ikaslerentzako lekua duten hemezortzi unitatek osatuko dute. A eta G ereduetao oraingo ikasleak Mendialdea I ikastetxe publikora atxikiko dira eta D ereduetao Mendialdea II ikastetxera.

Bestalde, oraingo ikastetxea desegiteak ukitzen dituen eta ikastetxe horretan behin betiko dauden irakasleak ikastetxe berrietara atxikiko dira lanpostuko antzintasuna galdu gabe. Foru Erkidegoko Administrazioaren mendeak eta irakasle ez diren langileen lanpostuak ere atxikiko dira.

Ikastetxe berriak Nafarroako ikastetxe publikoen sarean barne hartuko dira. Zehazki, "Iruña-Txantrea" 13. barrutira gehituko dira, Berriozarko DBHko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azpiguñeko Lehen Hezkuntzako gunean; Mendialdea I ikastetxearen kasuan, Iruñeko Padre Moret institutuko Bigarren Hezkuntzako gunera eta, Mendialdea II ikastetxearen kasuan, Iruñeko Eunate institutukora.

Bi ikastetxeek garraio eta jantoki zerbitzuak partekatuko dituztenez, zerbitzu bakoitza modu egokian eskaintzeko koordinatu egin beharko dira.